



Gotorlekuen kokapena Lekeitioko badian (Google Earth).

Bolbora & *kresala*

Lekeitioko gotorlekuen historia

Alfredo Moraza Barea

Abiapuntua

Historian zehar, Lekeitiok eta bere bizilagunek beti izan dute pentsamendua itsasoan jarrita. Bertatik iristen ziren kaiak hondatu eta itsasontziak hondoratzen zituzten ekaitzak, baina baita bizilagunek aprobetxatzen zituzten hondartzetan hondartuta gelditzen ziren baleak ere. Harantz abiatzen ziren arrantza-ontziak, egunak edo, beharbada, hilabeteak beranduago zama preziatuarekin bueltatuko zirenak. Bere urak zeharkatuz urrutiko kaietatik merkantzia-ontziak iristen ziren bertako merkatuak ez zituen produktuak ekartzeko.

Zeruertz amaigabe hori bazen baita oihalen silueta marrazten zuen puntua ere. Batzuetan ontzi laguna, eta beste kasu askotan kostako herri hauen lasaitasuna apurtu nahi zuten etsaiena, arrantza-ontziak edo kaia

bahituz edo arpilatuz, edo gerra garaietan bonbardatuz. Azken finean, itsasoa zen ahulgune bakarra, Lekeitioko babesaren "Akile-sen orpoa", hau da, arerioek iristeko zuten bide bakarra.



Kanpoko mehatxuoi aurre egiteko, euskal kostaldeko herriek, eta bertako agintariak (Lekeitioko horien artean), neurriak hartu zituzten, babes neurriak esan daitezkeenak. Kostaldea babesteko neurrioren artean, esan, gerra garaietan arrantza-ontziak armaz hornitzen zituztela, artilleria-pieza txikiak jarritz, hala arkabuzak, lantzak edo ezpatak. Era berean, herritarrak armak erabiltzen trebatzen zituzten alardeen bidez. Halaber, itsasertzeko puntu estrategikoenetan zelatariak edo talaia ipintzen zituzten zeruertza zaindu eta oihala etsaiak ikusi nahian. Talaia hauetakoko bat Santa Katalinako lurmuturrean kokatu zuten, hain zuzen ere. Zenbait kasutan babeserako egin zituzten lanak behin-behineko-

goak izan ziren, kaietako sarbideak kate handiz itxiz edo ontziak bokaletan hondoratuz.

Neurri hauek guztiak behin-behinekoak zirela esan dezakegu eta, zalantzarik gabe, geroz eta arma hobez hornituago zegoen etsaiei aurre egiteko eskasegiak. Horrela, eta denbora igaro ahala, euskal itsasertzean lehenengo babes eraikuntzak altxatzen hasi ziren kaiak arriskuetatik saihesteko asmoz. Hasiera batean, eraikinok tropak ezkutatzekeo lubaki edo parapeto xumeak besterik ez ziren izan. Ondoren, hainbat artilleria-piezaz hornitutako eraikuntza nagusiagoak egin ziren. Eraikin hauek bateriak, forteak, gotorlekuak edo gazteluak ziren, ondorengo lerroetan aipatuko ditugunak.

Lekeitioko defentsa


Lekeitioko kaiaren defentsarik onena bere inguru propioa da. Izan ere, Lekeitioko badia mendi artean sartuta dagoen senadi estu bat da, Lea ibaiaren bokalean, hain zuzen ere. 1726ko idatzi baten honela deskribatu zuten Lekeitioko kaia: *“puerto de dos entradas causadas de una ysla que tiene en su frente y a corta distancia, dicha San Nicolas. En tiempo de vonanza y pleamar pueden entrar embarcaciones menores y merchantes pero no fragatas de guerra, tiene uno y otro lado varra expuesta al tiempo, muelles con una pequeña concha guardada de todos vientos y solo con el noroeste ay vastante resaca”*.

Sakonerako baldintzak “eskasak” izan arren, Lekeitioko kaia babesteko neurriak aitzindariak izan ziren Bizkaian; garai berean beste garrantzi handiagoko kai batzuetan (Bermeon, Portugaleten, Mundakan...) hartutakoak baino lehenagokoak. Historian zehar zonaldean, Lekeitio (Talabekoa, San Juan Tala, Plaza, San Nikolas, Santa Katalina, Lumentxa,...) eta Mendexan (Artzabal, Kurlutxu, Likolarre), eraiki ziren gotorleku guztiak, hamarren bat guztira, ezin ditugu zehatz landu, baina bai zertzelada batzuk eman.


Gotorleku horietako batzuk mendeetan zehar iraun zuten, XVI. gizaldiaren hasieratik XIX. era arte. Beste batzuk, aldiz, borrokaldiren bat zegoenean soilik egokitzen ziren eta ondoren bertan behera utzi. Esan beharra dago gotorleku horien itxuran ez dagoela berdintasunik. Batzuk, lurrezko hormak zituzten posizio txikiak izan ziren, zaku, upel eta artilleria-pieza bakarrekin. Beste batzuk, ordea, horma sendoak eta kainoi ugari izan zituzten, non

beste eraikuntza batzuk ere egokitzen ziren artilleroak eta beren armamentua gordetzekeo (balak, horma-euskarriak, baketak, lanadak, koilarak, bolbora, etab.). Maila honetan, Lekeitioko gotorleku nagusia Talabekoa izan zen, *“Atalaya de Abajo”* edo *“Bateria de la Cruz”* bezala ere ezaguna, eta egungo heliportutik gertu kokatzen zena, kaira sartzekeo bokalea kontrolatzen zuena. Bertan, 1528an, ezarri ziren Lekeitioko kaia babesteko lehenengo bi artilleria-piezak, zehazki

bi burdinazko horma-zulatzaila. Urte batzuk beranduago, 1554an, eta Koroaren aginduz, toki berean dorre sendo bat eraiki zen (*“una torre en la Talaya de este puerto a manera de balluarte”*), inguruan zituen hormekin babes-tuta zegoena (*“un paredon que forme punta de diamante en corta distancia” –1703–*). Posizio honek kalibre desberdinetako sei kainoi izan zituen, naiz eta horietako lau 1774an herdoilduta zeuden eta lurtean botata (*“desmontados por ynservibles”*).



“Descripción de España y de las costas y puertos de sus reinos”, Pedro Texeiraren planoak, 1634



Bombarda. Horrelako artilleria-piezak ziren kaia zaintzearen arduradunak XVI mende erdialdean (300 m inguruko tiramena zuten)

Foru eskumenak defentsa gaietan autonomia osoa uzten zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Hori zela eta, gotorlekuen eraikuntza eta mantentze lanak Jaurerriak ordaintzen zituen hein handi batean. Baina, 1876tik aurrera, bigarren borroka karlista galdu eta gero, Estatuak bereganatu egin zituen gerra kontuekin lotutako eskumenak guztiak (soldadutza, gotorlekuak egitea, etab.), euskal lurraldeetara luzatuz Estatuko legedi orokorra.

Foru autonomia hau galdu aurretik, Lekeitio bezalako udalak garrantzitsuak izan ziren defentsa organigrama orokorrean, beren ardurar baitzen gerrarako hornidura eta artilleria-piezek zaintzea. Hala eta guzti ere, mantentze lan honetaz, orokorrean, herriak ahaztu egiten ziren eta, ondorioz, gotorlekuak eurak, eta baita beraien horniketara, bertan behera utzita egoten ziren gerratik gerrara artean. Honela, bolbora edo gerra hornidurak lapurtzea ohikoa bihurtu zen eta hainbat defentsa tresna, berezkoz aparte, beste helburu batzuetan erabiltzea ere bai. Esate baterako, kanoiak ontziak amarratzeko edo mahats-parrak egiteko erabili ohi ziren eta, umeen jolastoki bihurturik, harriz eta lurrez beteta gelditzen ziren.

Neurrigabekeri hauek eta materialen hondatzea saiheste aldera eta ondo gordeta izateko, foru agintariak bolborategi txiki batzuk egin zituzten herriz herri. Hala eta guzti ere, egia esan, eraikin hauek, gehienetan, oso txa-

bola xumeak besterik ez ziren, baina beste kasu batzuetan baterien inguruan zeuden eraikin sendoak erabili zituzten gordeleku helburua betetzeko. Lekeitio azken hau gertatu zen, eta Santa Katalinako eta San Juan Talakoko baselizetako sakristiak erabili zituzten tresneria eta abar gordetzeko. Leku sakratuak erabiltzean, baina, 1780an, gotzainaren haserrea piztu zuen, udala tenpluak profanatzegatik salatuz, nahiz eta ordurako mende erdiz edo horixe berori egiten ibili.

Historikoki, Lekeitioren babesna, inguruan kokatutako hamarren bat bateria eta gotorkuren esku egon zen, baina esan beharra dago baita ere, hamarrotatik hiru edo lau besterik ez zirela izaten defentsa betebeharra batera egiteko moduan zeudenak.

Kronologikoki, bateria zaharrenak kaiaren bokalean kokatu ziren, Talabekoa (lehen aipatutakoa) eta San Juan Talakon. Lekuotan, XVI. mende erdirako baziren babeserako bi eraikuntza artilleria-piezez hornituak ("un passamuro maior en la Atalaia de arriba", y "en la Torre de abajo una bombarda grande,.. otro pasamuro ...(y) quatro bersos" –1560–). Bi posizioak lotzeko baziren baita ere ("unas trincheras antiguas con sus troneras para la mosqueteria" –1703–). Talabekoko bateriak zutik iraun zuen Lehen Karlistadara arte (1833-1839), San Juan Talakokoak, ostera, bigarren karlistaldira arte gutxienez (1872-

1876). Azken honen arrastoak, oraindik ere, izen bereko baselizaren ondoan dagoen plaza txikian ikus daitezke, zonaldean egin ziren azken berrikuntzei esker. Jose Comas arkitektoak zuzendu zituen 1992-93an egin ziren urbanizatze lanak eta lanbide-eskola baten bidez gauzatu ziren. Lanak martxan zeudela agertu ziren kanoi-zuloen aztarnak eta kontu handiarekin agerian utzi ziren. Txalotzeko ekimena. San Juan Talakokoa, esparru txiki bat zen, seguruenik erlaitza aldetik (atzealde) irekia, non oraindino hiru kanoi-zulo (1827ko agiri baten lau zirela aipatzen da) ikusi daitezkeen, horietako bat itxia. Lapranduran itsasorantz irekiak dauden kanoi-zulo hauek, artilleroei, hau da, asko edo gutxi horretarako gauza ziren herriko marinelei, tiroak norabide batean edo bestean botatzea ahalbidetzen zien.

Bi bateria hauek izan ziren mendez mende Lekeitioko kaiaren babesaren ardatz nagusia, baina, hala eta guzti ere, ez ziren nahiko kanpotik zetozen mehatxu guztiei aurre egiteko eta Koroa espainiarrak parte hartzen zuen borrokaldi bakoitzean, kostako defentsa-sistema guztia berrikusi beharrean aurkitzen ziren. Berrikusi, berritu eta eraikuntza berriz osatu behar izan ezker. Hauxe berau gertatu zen Hogeita Hamar Urteko Gerran (1618-1648), batez ere, kontinente europarrera zabaldu zenean, eta are gehiago Frantzia guduan sartu zenean. Lekeitiok zituen defentsa gabeziak 1643tik aurrera hasi ziren konpontzen gotorleku berri bi eraikiz, bata Karraspion eta bestea, Plazan. Lehenengoa, Karraspiokoa, Artzabal (Mendexa) inguruan kokatu zuten: "en el arenal y puesto que llaman Garraspion que mira a la entrada de la playa que es a la parte del Nordeste de la ysla". Xumea izan zen, hiru kanoikoa, eta bizitza oso laburra izan zuen. 1650ean baliorik ez zuela dio agiri batek eta bertan behera utzita aurkitzen zela. Plazako bateriak, garrantzi handiagoa izan zuen eta bizitza luzeagoa ere bai. 1643ko paper batean zera esaten beraren gainean: "baluarte del çiminterio de avaxo que sirve de plaça de armas por donde se entra a la parte del astillero". Gaur egungo Independentziaren Enparantzan kokatuta zegoen, lurrazpiko aparkalekuaren azpian. Bere aztarnak, Plazako obrak tarteko, 1990ean suntsitu zituzten, ez baina indusketa arkeologiko barik. 1,20 metro zabalerako horma sendoa zuen, alde bakoitza diamante puntaz amaitzen zena, eta fusilentzat eta kanoientzat unez-une zabaltzen zena: ("una moralla de piedra labrada

con sus decentes asientos troneras de trecho en trecho para la artilleria, y rematase por ambos lados con cada punta de diamante de piedra labrada” –1740–). Hainbat berrikuntza eta konponketa izan zituen bateria honek (1794, 1810, 1827), denboran zehar garrantzia galduz beste posizio batzuen mesedetan.

Harrezkero, XVIII. mendearen erdira arte itxaron behar da Lekeition babes eraikuntza berriak egiten ikusteko, ordura arte zeuden osagarri. Orduan, arrazoia Austriar Sezisio-gerra (1740-1748) izan zen. Izan ere, kantauriar kostaldearen zati handi bat britainiar untziteriaren mehatxupean baitzegoen. Arrisku horri aurre egiteko, Foru Aldundiak Jaime Sycre ingeniari militarari kostako gotorleku batzuk konpondu eta eraikitzeko eskatu zion, horien artean Getxoko Punta Galea edo Bermeoko Tonpoi. Horiekin batera Lekeitioko Santa Katalinakoa eta San Nikolasekoa eraikiko ziren. Santa Katalinako Bateria izen bera duen lurmuturrean kokatu zuten, eta honekin batera kostaldea zaindu behar zuten zelatarien etxola. Bere aztarnak 2010ean suntsitu zituzten zonaldea berrurbanizatzerakoan. Ondoren berriro eraiki bazuten ere, konponketa oso zakarra izan zen. Eraitsi aurretik, baina, oinplano trapezoidala zuen esparru bat dokumentatu ahal izan zen, bi kanoi-zuloduna beste bi ar-


tilleria-piezarentzako. Bastioi hau zeharo desegina gelditu zen Gerra Napoleonikoetan (1808-1813), ondoren berritu ez zutelarik.

Bere ahizpa den bateriak historia baikorragoa izan zuen, San Nikolaseko Bateria bezala ezagutzen denak, Santa Katalinakoa legez, 1742-1744 aldera eraikia. Garraitz uhartearen Iparraldeko ertzean kokatua, bertatik Lekeitioko badia osoa kontrolatzen zuen. Zonaldean gordetako aztarnak, euskal kostaldeko interesgarrienetakoak kontsidera daitezke, bai kronologiagatik eta bai elementuen aniztasunagatik ere. Gaur egun, Atabaka Elkartearen eskutik eta bizilagun eta agintarien laguntzarekin (Lekeitioko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia), inguru hau berreskuratzeko eta balioa emateko egitasmoa abiatu da.

Uhartearen guneez berdin bi daudela esan daiteke. Goialdean, oinplano irregularra duen esparru bat identifikatu da, 21x18 m koadrokoa eta 1,20 m-ko zabalera duen horma sendotez inguratuta dagoena. Esparru honekin lotuta zenbait horma eraiki zituzten uhartearen bitan banatzen zutenak eta, horretaz gain, bateria txiki batzuekin lotzen zirenak (artilleriarako lautadak). Bestalde, uhartearen iparraldeko ertzean beste multzo bat kokatzen da, oinplano angeluzuzena duen esparru batekin (13,60x10,50 m), eta kareharrizko harlandu sendoz eginiko horma batekin mugatua (1,15 m-ko zabalera) non gutxienez lau kanoi-zu-

lo ireki ziren. Mendi-mazelan behera, kuartel zaharraren arrastoak ikusi daitezke, hala nola hornidura biltegia (garai karlistan gotorlekua berreraikitzeko agindua zuten “langileen” espetxe bezala erabilia), eta harkaitzetan sartuta dagoen eta ganga aizuna estalia duen bolborategia. Azken elementu hau da, zalantzarik gabe, euskal kostaldeko harribitxi txikietakoa bat, kostalde osoan ez baita horrelako besterik kontserbatu. Kronologikoki uharte honetan gorde diren arrastoak XVIII. mende erdialdetik XIX. mende erdialdera iristen dira. Zehatzago esanda, 1742tik 1839ra artean, borrokak izan ziren bakoitzean konpondu eta berreraiki zituzten elementu militarrik.

Lekeitioko gotorlekuen zerranda XVIII. mendearen bukaeran Lumentxako Bateria edo Kalbariokoa eraikitzerakoan osatu zen. Muino estrategiko bat: *“que domina por toda la circunferencia sobre cualquier avenida y acometimiento del enemigo sea por tierra ó sea por mar”*. Bere gailurrean, artifizialki egindako terraza batean, aztarna interesgarriak gordetzen dira. Gotorleku honek oinplano irregularra du (27x20 m gutxi gorabehera) 0,90/1 m-ko zabalera duen horma batez itxia non, gutxienez, hiru edo lau kanoi-zulo irekitzen diren (oso gaizki kontserbatuak). Era berean, multzoa osatzen zuten hainbat erakinen zimenduak ere atzeman daitezke. Gotorleku hau 1794an eraiki zen Gipuzkoatik zetozen tropa frantziarren mehatxutik babesteko. Bertan behera utzita, 1812an tropa frantziarrek konpondu zuten eta indar ingeles



Amstrong motako kanoi, 1875 aldera karlistek Likolarrako gailurrean jarritakoen antzekoa

eta gerrillariak suntsitu. 1834an berreraikia izan zen berriro ere, baina 1835eko urtarrilean, tximista batek jota, bolborategiak ez-tanda egin zuen eta zeharo suntsitu zen (ia soldadu-talde osoa hil zen bertan, 40 bat soldadu). Berriro ere berreraikia, hurrengo urteko martxoan tropa karlistek okupatu egin zuten eta konpondu.

Lehen Karlistadaren testuinguruan, gotorleku berri bat eraiki zen herritik gertu, **Santa Katalina**ko bidean, kostaldeko oinezkoen bidearekin batera konpondu berri den irtengune txiki batean. Tropa karlistek eraikia 1837an, ez zen gehiagorik erabili hurrengo urteetan izan ziren borroketan.

Zerrenda hau osatzen duen azken gotorlekua **Likoalarra** mendiaren gailurrean kokatzen da, Mendexako lurretan. Bertan tropa karlistek 1875ean Armstrong motako bi kanoi jarri zituzten Lekeitioko herriak jasaten zituen bonbardaketei aurre egiteko. Behin gatazka bukatu zenean, bertan behera utzi eta ez zen gehiagorik erabili.

Prozesu baten balantzea

Testuan zehar ikusi ahal izan dugu euskal kostaldeko herrientzat, eta bereziki Lekeitiorentzat, defentsa-sistema on bat izateak zer nolako garrantzia zuen. Gatazkak ugarriak izanik, babeserako neurriak hartzera behartuko zituen egoerak beraien ondasunak eta bertako bizilagunak gordetzeko. Irtenbidea, puntu estrategikoenetan gotorleku txikiak (forteak, bateriak, gotorlekuak...) eraikitzea izan zen, lekuotatik kanpo sarbideak zaindu ahal izateko.

Lekeitio eta inguruetan XVI. mendetik XIX.era hamar gotorleku inguru eraiki ziren. Askok dira desagertu zaizkigunak eta lekuko idatziak besterik utzi ez dizkigutenak beraien historia eta ezaugarriak azaltzeko. Beste batzuk, ordea, gaur egunera arte iritsi dira (San Juan Talako, San Nikolas, Lumentza), bakoitza garaian garaiko bere garrantziari buruzko lekukoak. Artikulu honen helburua hauxe baino ez da izan: inoiz nabarmenak izanda ere, gaur egun eraikin xume direnen oroimena, ahanzturatik gure gogora ekartea.

III Legueta

En virtud de la presente Comision, y habiendo pasado los oficios, Cuias Copias anteceden, al D^o Pedro de Eguarola Comisionado del Senorio durante la ultima Guerra y el Senor Alcaide de N^o Villa de Legueta pasamos a los autos donde se hallan las Artilleas Montadas, y sus Peñecos Custodiados, y en ellas halli los efectos siguientes En el fortin de la Talaya abajo existen dos Cañones utiles de Calibre de once y noventa y tres, Consus Cueros, y Carreacas herradas con quatuor almudadas, todos sexsibles, y utiles, Tres Cañones desmontados por ynsexsibles, un Carreacón ynsexsible y todo el efe de una rueda, una Cueraña vieja des usada es ynsexsible En la Hermita de San Juan. Cientos treinta y ocho Balas, de Calibre de diez y ocho Cientos veinte y un balas de ocho y doce, quarenta y seis, Cartuchos de Metralia en Costales de Lienzo liados con filástica para Cañones de diez y ocho, veinte y tres, y seis, y menores para cho Ladore y en los mismos terminos, diecinueve y cuarenta y ocho sacos de distintos Calibres todos allegados de filástica de secha, diez y ocho Espeques, quatuor almudadores de fierro para dos Cañones, onze atacadores consus Lanadas, dos atacadores sin Lanadas, dos Cuchillos de fierro tres Sacatrapos todos consus Banas y sexsibles, Tres almudadas de Lanón, Ciento y seis Sacos de Lienzo baco, para Cartuchos de Lanón de diversos Calibres, siete Chifles, ocho abufas Concillas tres botafuegos, dos Moldes de Cartuchos de diez y diez y ocho, tres medidas para allegar los Cartuchos de Polbora de ofa del agua, un Cajon cerrado y clavado que en su enmilla dice = fusil y Escopeta regular diez y quatuor, San Juan de diez y ocho, y quatuor se halló en una llana de Cartuchos echo para fusil y Escopeta = dos Cientos veinte =

Lekeitioko gotorlekuetan 1796an gordeta zeuden horniduren inbentarioa. (BFAAH. Administratiboa. AQ 607/01)



San Nikolas (Garraitz) irlako gotorlekuak, San Juan Talakoa, eta Lumentza tontorrekoa. Santa Katalinakoa ez dugu ipini, erreforman aldrebes jarri baitzuten.



Maaadarikatunari! Hiruzpau pinu triste baino ez badira gelditzen! Esaten neban nik, Okabijon akerrak bedarra bakarrik ez ebela jaten!

